

ANALISIA



CAFeko langileak beste behin kalera atera dira, amiantoak hildako lankide eta senideak oroitzeko.

Autopsiarako frogak



Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

ARGAZKIA: LAB-CAF

Amiantoarekin gertatzen ari denak gero eta antza gehiago dauka gerraosteko eszenatoki ilun batekin, konpondu beharreko osasun arazo larri batekin baino. Orain jakin berri dugu Irungo familia baten historia: CAFen lan egiten zuen gizon batek bere birrikak gordetzeko eskatu zuen hil aurretik, eta horri esker jakin dute amiantoak izan zela bere heriotza eragin zuena.

Celestino Tolosa Irungo CAF lantegian aritzen zen galdaragile, eta 1980an gaizki sentitzen hasi zen. Hurrengo hamarkadak sufrimendu askokoak izan ziren, biriketako gaixotasun butxatzaile kronikoa diagnostikatu zioten eta 2006an, oso larri zegoela, transplantea egin zioten. Ez zuen funtzionatu eta 2008an hil zen.

Urte asko igaro ondoren, haren alaba Otsanda Tolosak aitaren heriotza ikerzteza erabaki zuen, amiantoak zerikusia izan zezakeelakoan. Celestinori kendu zizkieten birrikak izan dira hori baieztatu duten frogak, Santanderreko ospitale batek ondorioztatu du amiantoak sorturiko asbestosiak jota hil zela: "Berak beti izan zuen susmoa lanaren ondorioz gaixotu

zela, horregatik eskatu zuen birrikak gordetzeko", azaldu dio alabak *El Diario Vasco* egunkariari.

Egia jakitearekin, heriotza hark sorturiko dolua amaitzeko aukera dauka orain familiak, eta justizia egiteko bide berriak zabaldu dizkie senidearen organoei egin-dako autopsiak: laneko gaixotasunagatik dagokien prestazioa eskatuko dute epaitegian, baina batez ere, eragindako minaren "aitortza" nahi dute.

Tamalez, amiantoaren biktimek epaitegietan egin ohi duten bidegurutzea luzea izaten da oso -enpresek eta osasun administrazioak jarritako oztopoengatik-, eta askotan, hil ondoren lortzen dute aitortza hori. Penagarria da muturreko egoera horretara iritsi beharra, gerra baten bide bazterrean desagertutako biktimak bailiran, haren memoria berreskuratuko duen antropologo edo auzi-medikuak lurpetik noiz aterako zain.

Zapalduak antolatzen ari dira ordea: Irun eta Beasaingo CAFen lanuzte eta manifestazioak, "hiltzaile isilak" berekin eramandako biktimen alde; Nafarroan laguntza eta defentsa elkarte berria; Laudion amianto eskolatik kentzeko sindura bilketa... Idazle hark zioen bezala, oraino ez gara hil esateko modua baita menpekoon hizkuntzan goraki aritzea.

EKONOMIAREN TALAIAN

Soldata politikoak eta miseriazko pentsioak



Juan Mari Arregi

Pentsiodunek -PPk eta EAJk elikatutako salbuespen gutxi batzuk izan ezik-, bi alderdion paktu oraindik argitu gabeko arbuia dute, eta mobilizazioekin jarraitzen dute pentsio publiko duinen defentsan. Astelehenetako ohiko elkarretaratzei aste honetan gehituko zaizkie hiriburuetan deitu diren manifestazioak, maiatzaren 26an. PPren eta EAJren arteko akordioaren kontra daude ez zaielako aski iruditzen eta 1.080 euroko gutxieneko pentsioa eskatzen segitzen dute, Europako Karta Sozialak dioen moduan.

Gobernuen tesia da sistemak ezin izango lukeela jasan pentsio txikiak gutxieneko 1.080 eurora igotzea. Hori diotenek eta pentsio miseria-bleak inposatzen dituztenek bestelako soldatak kobratzen dituzte ordea: Urkullu lehendakariak 7.140 euro jasotzen du hilean eta parlamentari batek berriz 5.000 euro. José María Aznarren ildo berean doaz beraz. Duela hamahiru urtetik urtean 80.000 euroko biziarteko pentsioa poltsikoratzen du Espainiako Estatuako presidente ohiak, eta inongo lotsarik gabe zera baieztatu du: "Ez badugu ezer egiten pentsioak pobretuko dira, 70 urterekin jubilatu behar da". Hori aurpegia!

Ez da egia sistemak ezin duenik herritarrek eskatutako pentsio igoera jasan. Borondate politikoa besterik ez da behar, eta lehentasunak jartzea aberastasuna birbanatzeko. Politika fiskal justuagoa, alegia. Zergatik jaso behar dituzte lehendakariak eta parlamentariak halako soldata potoloak, Euskal Herrian 250.000 lagunek 700 eurotik beherako pentsioa jasotzen duten bitartean? Are gehiago, pentsiodunen erdia hilean 1.000 eurora iristen ez den bitartean? Pentsiodun, gazte nahiz herritar, elkartuta segi behar dugu mobilizatzen, gaurko eta biharko pentsio publiko duinak lortu arte. Pauso bakar bat ere ez atzera!